

SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak energia kontsumo ertain/altua duten enpresak izango dira. Gehienbat bigarren sektoreko enpresak izango dira, baina sektore guztietatik espero ditugu bezeroak eta guztien beharrak asetzeko prest gaude.

Enpresa hauek esan bezela kontsumo elektriko handia dutenak izango dira, kontsumo hau erregai fosilen bidez egiten dutenak. Energia iturri hori aldatzeko guregana joko dute enpresek eta guk energia berriztagarrietara aldatzeko zerbitzua eskeiniko diegu. Bezero hauetan hainbat talde identifika ditzakegu, haien kontsumo eta inguruaren arabera.

Merkatua segmentatzeko enpresen ingurua erabiliko dugu, izan ere, enpresek duten inguru fisikoak eskeiniko diegun zerbitzua bideratuko du. Energia berriztagarri bakoitzak inguru jakin bat behar duela argi dago, beraz inguruaren arabera sailkatzea da egokiena.

Horrez gain, energia kontsumoaren bolumena ere erabakigarria da zein zerbitzu mota eskeintzea erabakitzeko, energia berriztagarri jakin batzuk egokiagoak baitira bolumen handietan eta besteak txikietan.

Ezaugarri komuna beraz, energia kontsumo proiektu bat behar edo nahi dutela da; ezaugarri ezberdinak, aldiz, haien inguru fisikoa.

Beraz, merkatua honela zatiturik egongo litzateke:

- Kontsumoaren arabera
 - Kontsumo altua
 - Ibilgailuak erabili
 - Ibilgailurik ez
 - Kontsumo ertaina
- Inguru fisikoaren arabera
 - Klima eguzkitsua
 - Haizea aprobeitza daitekeen ingurua
 - Errekak

